

TITULARRAK	ADIERAZLEAK		
	Azken dataua	Δ Urte artean (%) <small>*aurreko aldia</small>	Azken data dataua
<ul style="list-style-type: none"> Bilbon otsailean erregistratutako langabeen kopurua 20.947 pertsonara jaitsi da. Bilboko enpresetan afiliatutako langileen kopuruak gora egin du aurreko hilabetearekin alderatuta (+% 0,2), eta 199.652 pertsona gehitu dira. Erregistratutako kontratuak % 1,7 egin dute gora urte batetik bestera, eta kontratuen % 92,5 zerbitzuen sektorekoak izan dira. Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek urte arteko % 0,3ko igoera izan dute. Bilboko jarduera turistikoaren esparruan, otsailean gora egin dute bidaiarien sarrerek (+% 1,2) eta hiriko ostatu-gauek (+% 3,8 urte artean). Bizkaiko BPGd-ak urte arteko % 2,4ko gorakada izan du 2025eko laugarren hiruhilekoan (% 2,3 izan da 2025eko urte osorako). Etxebizitza berrien prezioa -% 2,6 jaitsi da urte batetik bestera 2025eko azken hiruhilekoan, eta erabilitako etxebizitzena % 9,4 igo da aldi berean. Bilboko aireportuak 418.185 bidaiari erregistratu ditu otsailean. Hau da, urte arteko % 0,9ko gehikuntza egon da. Bilboko Portuak 3,1 milioi tona erregistratu ditu otsailean % 6,0ko igoera aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta. 	<p>Lan-merkatua</p> <p>Afiliatutako biztanleak (kop.) 199.652</p> <p>Erregistratutako langabeak (kop.) 20.947</p> <p>Erregistratutako kontratuak 10.143</p> <p>Merkataritza</p> <p>Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenten indizea (2021. urtea = 100eko oinarria) 91,9</p> <p>Turismoa (hotelak eta apartamentuak)</p> <p>Bidaiarien sarrera (kop.) 85.668</p> <p>Ostatu-gauak (kop.) 164.964</p> <p>Batez besteko egonaldia (egunetan) 1,93</p> <p>Ekonomia eta enpresak</p> <p>Etxebizitza libre berria (€/m²) 5.015,1</p> <p>Bigarren eskuko etxebizitza (€/m²) 3.656,3</p> <p>Bizkaiko BPGd (2022. urtea=oinarria 100) 109,0</p> <p>Garraioa</p> <p>Bidaiarien aireko garraioa (kop.) 418.185</p> <p>Salgaien itsas-garraioa (milioi tona) 3,1</p> <p>Hiri- eta metropoli-garraioa (milioi bidaiari) 137,8</p>	<p>0,2*</p> <p>-1,1*</p> <p>1,7</p> <p>0,3</p> <p>1,2</p> <p>3,8</p> <p>2,66</p> <p>-2,6*</p> <p>9,4*</p> <p>0,5*</p> <p>0,9</p> <p>6,0</p> <p>9,5</p>	<p>Ots</p> <p>Ots</p> <p>Ots</p> <p>Ots</p> <p>Ots</p> <p>Ots</p> <p>Ots</p> <p>IV. HH</p> <p>IV. HH</p> <p>IV. HH</p> <p>Ots</p> <p>Ots</p> <p>Ots</p> <p>2025</p>

DATU BAT

% 2,4 urte artekoa

Bizkaiko BPGd-a

LAN-MERKATUA

Erregistratutako langabezia

Otsailean 239 langabe gutxiago erregistratu ziren, hau da, hilabete arteko $-% 1,1$ gutxiago, eta 20.947 langabe daude udalerrian.

Langabezia-tasa jaitsi egin da gizonen eta emakumeen artean, $-% 1,5$ eta $-% 0,9$, hurrenez hurren. Termino absolutuetan, hilabete amaieran 136 gizon langabe eta 103 emakumezko langabe gutxiago zeuden.

25-44 urteko taldean jaitsi da gehien langabezia ($-% 1,9$ eta 138 langabe gutxiago); ondoren, 45 urte eta gehiagokoen tartea ($-% 1,1$, -126 langabe gutxiago). Langabezia hazi egin da gazteenen artean ($+% 1,3$, 25 langabe gehiago).

Sektoreka, zerbitzuetan 176 langabe gutxiago daude ($-% 1,2$), eraikuntzan 34 gutxiago ($-% 2,7$), Industrian 20 ($-% 1,5$) eta lehen sektorean 16 gutxiago ($-% 4,1$). Igo egin dira lehen lanaren bila dabilzanak ($% 0,2$ eta 7 pertsona gehiago).

Benchmarkinga. Espainiako bost hiriburu handien taldean (G-5) erregistratutako langabezia-tasak $% 0,8$ egin du gora aurreko hilaren aldean. Zaragozak izan du igoerarik handiena: $% 1,6$. Jaitsiera bakarra Valentzian erregistratu da ($-% 0,4$).

Euskal hiriburuen multzoan (G-3), erregistratutako langabezia-tasa $-% 0,4$ jaitsi da. Gasteizen $-% 1,3$ jaitsi da, Donostian $-% 0,4$ eta Iruñean $% 1,0$ igo da.

Langabeziak behera egin du EAEn ($-% 1,1$) hilabete artean. Lurraldeka: Bizkaian eta Araban $-% 1,2$ egin du behera eta Gipuzkoan $-% 0,6$.

Afiliatuak

Bilboko enpresetan 199.652 afiliatu zeuden otsaila amaieran, hau da, $% 0,2$ ko igoera izan zen eta 356 enplegu ugaritu ziren urtarrilarekin alderatuta.

Araubideen arabera, Orokorrak 857 enplegu irabazi ditu aurreko hilaren aldean ($% 0,5$), eta Langile Autonomoen Araubide Bereziak 46 afiliazio ($% 0,2$). Etxeko langileenak behera egin du ($-% 8,8$ eta 542 enplegu gutxiago) eta bereziek (Nekazaritza eta itsasoa) 5 enplegu galdu dituzte.

Sektoreka, Zerbitzuetan 360 afiliatu gehiago daude ($+% 0,2$), Eraikuntzan 40 gehiago ($+% 0,4$), Industrian 37 enplegu galdu dira ($-% 0,4$) eta Lehen sektorean 7 ($-% 3,0$).

Erregistratutako langabeak

Hilabete artekoa Δ

Otsaila	20.947 pertsona
	$% 1,1$ ▼
Emakumeak	$% 0,9$ ▼
Gizonak	$% 1,5$ ▼

Benchmarkina

Hilabete artekoa Δ

Bilbo	$% 1,1$ ▼
G-5	$% 0,8$ ▲
G-3	$% 0,4$ ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Populazio afiliatua, araubideen arabera

Hilabete artekoa Δ

Otsaila	199.652 pertsona
	$% 0,2$ ▲
Araubide orokorra	$% 0,5$ ▲
Autonomoak	$% 0,2$ ▲
Etxeko langileak	$% 8,8$ ▼
Bestelakoak	$% 0,7$ ▼

Zerbitzuetan, eta datu absolutuetan, nabarmenak dira administrazio-jardueretako, jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetako eta hezkuntzako adarretan izandako igoerak (386, 172, 158 gehiago, hurrenez hurren). Osasun (+95) eta Ostalaritza (+79) sektoreek ere gora egin dute. Enpleguak, besteak beste, behera egin du Etxeko langileen, Aisialdi- eta kultura-jardueren eta Beste zerbitzu batzuen adarretan (-539, -68 eta 65, ordena horretan).

Benchmarkinga. Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak % 0,2ko gorakada izan du aurreko hilaren aldean. Bartzelonak izan ezik (-% 0,1eko jaitsiera), multzoko gainerako hiriburuetan igoerak izan dira: Zaragozak izan du igoerarik handiena (% 0,5) eta Sevillak txikiena (% 0,1).

G-3ko hiriburuen taldean, afiliatuen kopurua, batera hartuta, mantendu egin da (% 0,0). Behera egin du Donostian (-% 0,5), Iruñean ez da aldatu (% 0,0) eta Gasteizen % 0,5 egin du gora.

EAEen, oro har, afiliatuak % 0,5 igo dira hilabete artean. Lurralde guztiek egin dute gora afiliazioan: Araban eta Gipuzkoan % 0,5koa izan da igoera bi kasuetan, eta Bizkaian % 0,4koa.

Erregistratutako kontratuak

Otsailen 10.143 kontratu formalizatu ziren Bilboko enpresetan, hau da, urtetik urtera % 1,7ko igoera eta 169 kontratu gehiago. Urtetik urtera areagotu egin dira gizonen eta emakumeen egindako kontratuak: 62 eta 107 gehiago, hurrenez hurren.

Kontratuak 25-44 urtekoen taldean soilik jaitsi dira, -% 2,1, hau da, 104 kontratu gutxiago. Igo dira gazteen artean, % 9,6 gehiago, hau da, 208 kontratu gehiago, eta 45 urte baino gehiagoko artean, % 2,3 (65 gehiago) Erregistratutako kontratuen % 48,5 dagokio 25-44 urteko adin-tarteari (4.919 kontratu), % 23,4 berriz, gazteenei (2.376) eta gainerako % 28,1a, berriz, 45 urte eta gehiagokoei (2.848).

Sektoreka, kontratuak igo egin dira Zerbitzuetan (% 1,6 eta 145 kontratu gehiago) eta Industrian (% 21,2 eta 77 gehiago); aldiz, behera egin dute Eraikuntzan (-% 14,0 eta 51 gutxiago) eta Lehen sektorean (2 gutxiago). Zerbitzuetan, igoera absolutu esanguratsuenak Etxeko langileak enplegatzen dituzten etxebizitzetan (215 gehiago), Saltokietan (173 gehiago) eta Garraioan eta biltegiartzean (169 gehiago) izan dira. Informazioa eta komunikazioak (-137) eta Hezkuntza (-124) dira urte arteko jaitsiera handienak izan dituzten adarrak.

Aldi baterako lan-kontratuak kontratu guztien % 71,4 izan dira otsailen. Mugagabeek % 10,9 egin dute gora urtetik urtera.

7.618 pertsona kontratatu dira, % 2,7 gehiago. Hau da kontratu-txandakatzearen indizea: pertsona bakoitzeko 1,33 kontratu.

Afiliatuak, jarduera-sektoreen arabera

Hilabete artekoa Δ

199.652 pertsona

	% 0,2	▲
Zerbitzuak	% 0,2	▲
Eraikuntza	% 0,4	▲
Industria	% 0,4	▼
Lehenengo Sektorea	% 3,0	▼

Benchmarkinga

Hilabete artekoa Δ

Bilbo % 0,2 ▲

G-5 % 0,2 ▲

G-3 % 0,0 =

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Erregistratutako kontratuak

Urte artekoa Δ

Otsaila 10.143 pertsona

	% 1,7	▲
Emakumeak	% 1,9	▲
Gizonak	% 1,4	▲
Lehenengo Sektorea	% 40,0	▼
Industria	% 21,2	▲
Eraikuntza	% 14,0	▼
Zerbitzuak	% 1,6	▲
Kontratatutako pertsonak	% 2,7	▲

MERKATARITZA

Saltoki handiak eta elikagaien kateak

Bizkaiko saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek, otsailean % 0,3 egin dute gora urte batetik bestera, egutegi-eragina duten datu zuzenduetan. Aurreko hilabetearekin alderatuta, -% 1,1 murriztu dira salmentak.

Elikagaien salmentek gora egin dute (% 1,4) 2025eko otsailarekin alderatuta, eta gainerako produktuen salmentek -% 1,6 egin dute behera.

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko % 0,2ko igoera izan du.

Lurraldeka, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek gora egin dute Araban (% 3,7), eta Gipuzkoan (% 0,9). EAEn ere, orokorrean, % 1,0 egin dute gora.

Saltoki handiak Bizkaia

Urte artekoa Δ

Otsaila	91,9
Salmenten indizea	% 0,3 ▲
- Elikadura	% 1,4 ▲
- Gainerako produktuak	% 1,6 ▼
Lanean ari diren langileak	% 0,2 ▲

TURISMOA

Oro har, hotelak eta apartamentu turistikoak batuta, otsailean 85.668 sarrera eta 164.964 gaualdi izan dira Bilbon (urte batetik bestera +% 1,2 eta +% 3,8, hurrenez hurren).

Bilboko **hotel-establezimenduetan** 142.261 ostatu-gau erregistratu dira otsailean, hau da, % 1,2ko hazkundea egon da urtetik urtera (1.716 ostatu-gau gehiago).

Bidaiarien sarrerak ere gora egin du,% 0,4. Estatuko bidaiarien presentziak behera egin du urte artean (-% 7,9), eta otsailean hirira egindako bisitarien % 60,8 izan dira. Gainerako % 39,2 atzerritarrak dira, aurreko urteko hilabete berean Bilbon ostatu hartu zutenak baino % 16,6 gehiago.

Hiriko hoteletan ostatu hartutako bidaiari guztien artean, Madrilgo Erkidegokoak dira nagusi (% 21,9), ondoren, EAekoak (% 17,4), Kataluniakoak (% 11,9) eta Andaluziakoak (% 7,0). Atzerriko turismoari dagokionez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugarienak: Frantzia (18,1%), Erresuma Batua (10,1%), Alemania (8,9%), Italia (7,4%) eta Portugal (% 6,8).

Bidaiarien batez besteko egonaldia 1,84 gaualdikoa da (iazko otsailean 1,82koa).

Hotel establezimenduek emandako errentagarritasun datuen arabera, urtetik urtera batz besteko tarifak gora egin du, 89,1 euroraino, baita gela eskuragarriko diru-sarrerak ere (54,4 euro).

Apartamentu turistikoak establezimenduek 8.296 sarrera erregistratu dituzte guztira otsailean, hau da, % 8,8 gehiago eta 22.703 gaualdi gehiago, eta 2025eko otsailean baino % 24 gehiago.

Benchmarking. Euskal hiriburuen multzoan (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera negatiboa izan da, -% 6,4 jaitsi da urte batetik bestera. Iruñean -% 10,4 jaitsi dira, Donostian -% 7,6 eta Gasteizen -% 1,0.

EAE osoan -% 1,9 jaitsi dira aurreko urteko otsailaren aldean. Lurraldeka, langabeziak gora egin du Bizkaian (+% 1,0) eta Araban (+% 1,7). Gipuzkoan -% 6,6 jaitsi da.

Bestalde, Estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauak % 3,8ko gorakada izan dute. Sevillan izan ezik (-% 2,2), ostatu-gauak gora egin dute taldeko hiriburu guztietan. Valentziak izan du igoyerarik handiena: % 9,4.

Establezimenduak (hotelak eta apartamentuak)

Urte artekoa Δ

Otsaila

Ostatu-gauak, guztizkoak	164.964 ostatu-gauak	% 3,8 \blacktriangle
Sarrerak, guztira	85.668 sarrerak	% 1,2 \blacktriangle
Egonaldia, batez beste	1,93 ostatu-gau/bidaiariko	

Hotel establezimenduak

Urte artekoa Δ

Otsaila

Ostatu-gauak	142.261 ostatu-gauak	% 1,2 \blacktriangle
3 izar eta gehiagoko hotelak	% 4,1 \blacktriangledown	
Gainerako hotelak eta pentsioak	% 17,8 \blacktriangle	
Bidaiarien sarrerak	77.372 sarrerak	% 0,4 \blacktriangle
Espainiakoak	% 7,9 \blacktriangledown	
Atzerritarrak	% 16,6 \blacktriangle	
Egonaldia, batez beste	1,84 ostatu-gau/bidaiariko	

Hotelen errentagarritasunaren adierazleak

Urte artekoa Δ

Eguneko batez besteko tarifa logelako (€)	% 5,8 \blacktriangle
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	% 4,0 \blacktriangle

Apartamentu turistikoak

Urte artekoa Δ

Otsaila

Ostatu-gauak	22.703 ostatu-gauak	% 24,0 \blacktriangle
Bidaiarien sarrerak	8.296 sarrerak	% 8,8 \blacktriangle
Egonaldia, batez beste	2,74 ostatu-gau/bidaiariko	

Apartamentu turistikoak: "gutxienez logela, bainugela, egongela-jangela eta sukaldearekin osatutako ostatu-unitateez osatutako establezimenduak, multzo independente gisa eskainita eta enpresa-ustiapeneko unitatearen printzipioaren arabera kudeatuta, modu profesionalean eta ohikoan aldi baterako ostatua ematera bideratzen direnak, egoitza aldatu gabe". 198/2013 DEKRETUA, apirilaren 16koa, apartamentu turistikoak arautzen dituena. (Ez dira sartzen erabilera turistikorako etxebizitza partikularrak).

Benchmarkinga

Urte artekoa Δ

Bilbo	% 1,2 \blacktriangle
G-5	% 3,8 \blacktriangle
G-3	% 6,4 \blacktriangledown

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

EKONOMIA

Etxebizitza

Salerosketa. Bilboko etxebizitza berri libreen transakzioen metro karratuko batez besteko prezioa 5.015,1 eurokoa da, Eusko Jaurlaritzak urteko laugarren hiruhilekoari lotuta egin duen Etxebizitzen Salerosketaren Estatistikaren arabera. Horrek aurreko hiruhilekoan baino $-2,6$ merkeagoa izatea dakar, eta urte arteko terminoetan $34,3$ ko igoera izan du.

Erabilitako etxebizitzen transakzioetan metro koadroko prezioak $9,4$ egin du gora hirugarren hiruhilekoaren aldean, eta 3.656,3 eurokoa da. Urtetik urtera ere gora egin du erabilitako etxebizitzaren prezioak: $16,3$.

Bilboko etxebizitza libreen salerosketa-transakzioen batez besteko prezio osoa, 2025eko amaieran, 361.009 euro izan da, eta etxebizitza erabiliena, 309.631 euro.

Alokairua. Alokairuko azken datuen arabera (2025eko II. hiruhilekoa), Bilboko etxebizitzen alokairu libreko kontratu berrien batez besteko hileko errenta 947 eurokoa da, $1,2$ igo da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta $5,4$ hazi da urte arteko konparazioan.

Bizkaiko BPGd-a

Bizkaiko barne produktu gordinak urte arteko $2,4$ ko gorakada erregistratu du 2025eko laugarren hiruhilekoan. Euskal ekonomia osoari dagokionez, gora egin du, $2,4$.

Hiruhilekotik hiruhilekorako aldakuntzaren baldintzetan, Bizkaiko BPGd-a $0,5$ igo da eta, ondorioz, aurreko hiruhilekoan izandakoa baino txikiagoa izan da. Bestalde, EAren hazkundea $0,5$ ekoa izan da.

Euskadi osorako, oro har, hiruhileko arteko bilakaera positiboa izan dute sektore guztiek: Lehenengo sektorea $0,6$, Industria $0,7$, Eraikuntza $0,4$ eta Zerbitzuak $0,5$.

2025. urteko balantzea. 2025. urtean Bizkaiko BPGdaren bilakaera positiboa izan da $2,3$.

EAEko BPGd-ak $2,3$ egin du aurrera 2025ean. Lehen sektorean izan ezik ($-0,6$), sektore guztietan izan dira gorakadak: $0,4$ industrian, $3,7$ eraikuntzan eta $2,8$ zerbitzuetan.

Zerbitzuetan, merkataritza, ostalaritza eta garraioaren azpisektorea $3,3$ hazi da; administrazio publikoa, hezkuntza, osasun eta gizarte-zerbitzuetan $2,1$, eta gainerako zerbitzuak $2,9$.

Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa (m²)

IV. hiruhilekoa	5.015,1 €/m ²
Hiruhileko arteko Δ	$2,6$ ▼
Urte artekoa Δ	$34,3$ ▲

Bigarren eskuko etxebizitzaren prezioa (m²)

IV. hiruhilekoa	3.656,3 €/m ²
Hiruhileko arteko Δ	$9,4$ ▲
Urte artekoa Δ	$16,3$ ▲

Etxebizitzen alokairuaren batez besteko prezioa (€/hilabete)

II. hiruhilekoa	947,0 €/mes
Hiruhileko arteko Δ	$1,2$ ▲
Urte artekoa Δ	$5,4$ ▲

Barne Produktu Gordina Bizkaia

IV. hiruhilekoa	
Hiruhileko arteko Δ	$0,5$ ▲
Urte artekoa Δ	$2,4$ ▲
Hiruhileko BPG (milioi €)	13.304,6

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Aireportuko bidaiariak

Bilboko aireportuak 418.185 bidaiari izan ditu otsailean (iritsierak eta irteerak kontuan hartuta), hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 0,9 eta 3.811 bidaiari gehiago. Emaitza horiekin, gainera, otsaileko daturik onena lortu du, funtzionatzen hasi zenetik.

Merkataritza-operazioetan, jaitsi egin da hegaldi nazionaletako bidaiarien kopurua (21.002 bidaiari gutxiago, -% 7,9), eta igo egin dira, aldiz, nazioartekoetako (24.705 bidaiari gehiago, % 16,6).

Hilean operatutako hegaldiak jaitsi egin dira, eta iritsieren eta irteeren artean 3.068 izan dira. Eta horietan garraiatutako salgaiak ere jaitsi egin dira (-% 19,3).

Benchmarkinga. Espainiako bost hiri nagusien barruan (G-5), urtetik urtera % 4,8ko igoera kontabilizatu da bidaiariei dagokienez. Aireportuen artean Sevillakoa izan da igoera handiena izan duena (% 8,5), eta Zaragozakoa, berriz, bidaiarietan jaitsiera izan duen multzoko bakarra (-% 0,9).

G-3 multzoan, bidaiarien zirkulazioari begira, urtetik urtera % 10,9 igo da. Gasteiz % 57,2 igo da eta Iruñea % 6,6. Donostiak bakarrik egin du behera, -% 8,3.

Aireko garraioa

Urte artekoa Δ

Otsaila	418.185 bidaiari
	% 0,9 ▲
Espainiakoak	% 7,9 ▼
Nazioartekoak	% 16,6 ▲
Salgaiak (kg)	% 19,3 ▼
Hegaldiak	% 13,9 ▼

Benchmarkinga

Urte artekoa Δ

Bilbo	% 0,9 ▲
G-5	% 4,8 ▲
G-3	% 10,9 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Portuko trafikoa

Bilboko Portuak 3,1 milioi tonako trafikoa izan du otsailean, hau da, % 6,0 gehiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolio eta gasa, funtsean) portuan otsailean kudeatzen diren salgaien % 64,1 izan da, eta urte arteko % 4,7ko igoera erregistratu du. Solteko gaien trafikoa % 28,6 igo da (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta salgai orokorrena -% 0,2 jaitsi.

Otsailean 5.775 itsas bidaiari erregistratu dira itsas bidaia bakar batean.

Itsasoko garraioa Otsaila

Urte artekoa Δ

Portuko trafikoa	3,1 milioi tona.
	% 6,0 ▲
Bidaiarien garraioa	8.947 bidaiari
	% 101,7 ▲
Gurutzaldiko bidaiariak (kop.)	5.775 gurutzaldiko bidaiari

Metropoli-garraioa

2025. urteko balantzea. 2025ean Bilboko hiri- eta metropoli-garraioetako erabiltzaileen kopurua (Metro Bilbao, Bilbobus eta EuskoTran) guztira, 137,8 milioi bidaiarira heldu zen; beraz, % 9,5 igo da iazko aldi berarekin alderatuta.

Urteko datu horrek esan nahi du 11.930.249 bidaiarirekin gainditu dela 2024ko datua.

Metro Bilbaok bidaiari guztien (104,5 milioi) hiru laurden jaso ditu, hau da, % 4,1eko igoera izan du urtetik urtera.

Bilbobusek bidaiarien bosten bat baino pixka bat gehiago ditu (29,5 milioi) eta igoerarik handiena erregistratu du: % 35,7.

EuskoTranen, bidaiarien kopurua % 0,3 handitu da, eta, guztira, 3,8 milioi bidaiari garraiatu ditu.

Hiri- eta metropoli-garraioa

Urte artekoa Δ

2025	137,8 milioi bidaiari
	% 9,5 ▲
Bilbobus	% 35,7 ▲
Metro Bilbao	% 4,1 ▲
EuskoTran	% 0,3 ▲

ADIERAZLEEN KOADROA


	Azken datua	Urte arteko aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
Lan-merkatua			
Erregistratutako langabeak (kop.)	20.947	-1,1*	2026ko ots.
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	199.652	0,2*	2026ko ots.
Erregistratutako kontratuak (kop ^o)**	10.143	1,7	2026ko ots.
Biztanleria aktiboa (milaka)	178,1	1,3*	2025eko IV. HH
Biztanleria okupatua (milaka)	156,6	-4,9*	2025eko IV. HH
Biztanleria langabetua (milaka)	21,5	92,0*	2025eko IV. HH
BAlko langabezia-tasa (%)	12,08	5,72 pp.*	2025eko IV. HH
Merkataritza			
Kontsumo-prezioen indizea (KPI)***	101,4	0,5*	2026ko ots.
Afiliatuak**	19.452	-0,1*	2026ko ots.
Txikizkako merkataritza-salmenta (indizea)***	126,2	2,6	2025eko IV. HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	91,9	0,3	2026ko ots.
Turismoa			
Hotel establezimenduak			
Bidaarien sarrerak	77.372	0,4	2026ko ots.
Ostatu-gauak	142.261	1,2	2026ko ots.
Batez besteko egonaldia (ostatu- gauak/bidaiariak)	1,84	1,1	2026ko ots.
Hotelen okupazio maila (%)	48,9	-0,4 p.p.	2026ko ots.
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	54,4	4,0	2026ko ots.
Apartamentu turistikoak			
Bidaarien sarrerak	8.296	8,8	2026ko ots.
Ostatu-gauak	22.703	24,0	2026ko ots.
Batez besteko egonaldia apartamentuetan	2,74	14,2	2026ko ots.
Ekonomia eta enpresak			
Bizkaiko BPGd-a	109,0	0,5*	2025eko IV. HH
Industria-produkzioa (indizea)***	105,4	3,5	2026ko urtarrila
Merkataritza-sozietate berriak	984	13,9	2025
Zerbitzuen salmentak (indizea)***	135,5	1,4	2025eko IV. HH
Etxebizitza librearen batez besteko prezioa (€/m ²)	5.015,1	-2,6*	2025eko IV. HH
Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa (€/m ²)	3.656,3	9,4*	2025eko IV. HH
Etxebizitzen alokairuaren prezioa (€/hilabete)	947,0	1,2*	2025eko II. HH
Garraioa			
Bidaarien aireko garraioa (kop.)	418.185	0,9	2026ko ots.
Hegaldiak	3.068	-13,9	2026ko ots.
Salgaien itsas-garraioa (milioi tona)	3,1	6,0	2026ko ots.
Hiri- eta metropoli-garraioa (milioi bidaiari)	137,8	9,5	2025

* Aurreko aldiarekiko aldakuntza-tasa. ** Enpresen arabera, Bilbon. *** Bizkaiari dagokiona.


Iturriak: Guk egina, datu hauetan oinarrituta: Eustat, EIN, Inklusio, Gizarte Segurantzak eta Migrazio Ministerioa, Eusko Jaurlaritza, Lanbide, SEPE, Merkataritza Erregistroa, AENA, Estatuko Portuak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Cotrabi.

GRAFIKOAK


Erregistratutako langabezia




Afiliatuak




Saltoki handiak eta elikagaien kateak



Hoteletako ostatu-gauak (kop.)



Bizkaiko BPGd-a



Aireportuko bidaiariak

